

EZARRITAKO ANTOLAKETA HAU BEHIN BEHINEKOA DA, ETA COVID-19AREN EBOLUZIOAREN BAITAN ALDAKORRA IZAN DAITEKE.

DBH3 eta DBH4	ARGAZKIA
Ikastolara sarrera ate Nagusitik egingo da (Arkutik), eta sarrera idazkaritzako atetik egin beharko dute. Ikasleak markatutako lekuan zain egon beharko dira dagokion segurtasuna tartea errespetatuz. Eguerdian etxera bazkaltzera joaten diren ikasleentzako irteera eta sarrera aipatutako leku beretik egingo dira. <u>IRAILAK 15 – AURKEZPEN EGUNA</u> Egun honetan, asteartea, ikasleak 10:00etan sartuko dira geletara idazkaritzatik. Ikasleak irakasle batek jasoko ditu eraikinaren sarreran, eta bere gelara bideratuko ditu tenperatura hartu eta eskuak garbitu ondoren. <u>IRAILAK 16tik aurrera</u> Asteazkenetik aurrera, ikasleak 8:30-8:45 bitartean sartuko dira geletara idazkaritzatik. Ikasleak tutore batek jasoko ditu eraikinaren sarreran, eta bere gelara bideratuko ditu tenperatura hartu eta eskuak garbitu ondoren. • Horretarako garrantzitsua da aipatutako orduan egitea sarrera, ez arinago ez beranduago. • Ikasleak lagunduta badatoz (familia, zaintzaile...), laguntzaile bakarraz etorriko dira. • Ikasleak orduz kanpo badatoz, idazkaritzatik sartuko dira, tenperatura hartuz eta eskuak garbituz. Ikasleak eguerdian, 14:45etan aterako dira klasetik. Ikaslea BAZKALTZEN GELDITZEN BADA bazkal ostean etxera joan beharko da, ezin izango da ikastolan gelditu.	SARRERA-IRTEERA  